

Aste nagusia?

Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegí'
Idazlea

Abuztuaren 21an amaitu da «*Semana Grande Donostiarra*» delakoa. Batzuek, euskaraz, «Donostiako Aste Nagusia» itzulia.

Aurten ere zer ikusi eta entzun dugu astean barrena? Zortzi egun horietan barrena, alegia (Bilbon bederatziz izango inaki Azkuna alkatearen pozerako).

Oso nekeza da donostiar euskaldunok pairatu behar izan duguna azaltzea.

Zortzi egunez, eta egunero, zezenketa antolatuta dute Illunben. Zenbat zezen hil arte torturatu duten ez dakit: sei? zortzi? Biderketa erraza da: 60 bat zezen sakrifikaturik aste honetan zehar.

Eta pozarren. «*Olé*» txuleskoak eta «pasodoble toreroak» ok eragin arte entzun arazi dizkigutelarik.

Turistek ere (gehienek), hemengo egoeraz zipitzik ez daketelarik, pozik oso: «*C'est formidable! Ici nous allons voir une corrida en Espagne*».

Euskal Telebistan, berriz,

Alberto Surioren gidaritzapean, bi kateetan eman dituzte egunero zezenketen berri. Erago, ETB-ian are jerga berezi bat asmatzen saiatu dira euskaraz.

«*La Fiesta Nacional Española*»-k hori eta gehiago merezi duelako.

Piper-potoaren erdian zezen buru baten isla erantsia ikusi dugu ehunka banderatan.

Eta gazte batzuen nikietan ere hau irakurri dugu: «*Somos españoles*». Beste batzuetan «*Somos España*». Eta Donostiako Parte Zaharrean ibili dira, probokatzaile (konturatu gabe, omen).

Orain, urteroko inbasioaren

amaiera gertu bide dugularik, gutxienez «*etxekook*» (?) mugituko gara Donostiako kale eta enparantzetan. Itoketa saioa

Hau ez da Aste Nagusia izan. Hau Aste Espainola izan da. Noizko izen aldaketa? Donostiarrok aztertu behar dugu. Noiz amaituko dugu «Aste Nagusia»-ren fartsa?

pittin bat lasaituko da, pittin bat bederen.

Eta aste jasanezin hau amaitzean, geure artean pentsatzen dugu. Hau ez da Aste Nagusia izan. Hau Aste Espainola izan da.

Noizko izen aldaketa?

Donostiarrok aztertu behar dugu.

Noiz amaituko dugu «Aste Nagusia»-ren fartsa?

Batzuek, ahal dutenek, gutxi, hartua dute erabakia: aste horretan norabait joatea, baserriren batera, herri txiki-eren batera. Baina Donostiatik, hanka.

Baina horrelakorik egin ezin dezakatenek, gehienek, zer egingo? Benetan zer gomena ote daitekeen ez dakit.

Baina orain esaten den bezala, aste hau «*gehiegiegi*» izan da.

Urtero izaten den bezala, egia aitortzeko.

Sarkozy 'payo'-a eta ijito herriaren batasuna

Cesar Manzanos
EHUko Soziologia doktorea

Zer gertatuko zen Alemania nazian, labeetara ijitoak bakarrik bidali izan balituzte?

Erantzuna argi dago. Frantziaren oraintxe dugu begi bistan. Frantziako Barne ministroak dio legez kanpoko txabolategiak sortu eta zabaltzen dituztelako eta prostituzioarekin, delituekin eta haur eskaleekin zerikusia dutelako botatzen dituztela Europako Batasuneko herrialde batzuetatik heldutako ijitoak.

Baina ezin dugu ahaztu jarduera horietan aritzera behar izaten ditugula gizartetik modu sistematikoan bazterturiko pertsonak. Eta hori, hain zuzen, migrazio gaitan politika sozialik ez lantzearen ondorio da, etorkinen joan-etorkien kontrol selektiboa lehenesten baitugu.

Sarkozy *payo*-ak ez du nabarmenkeriarik egin. Izan ere, ijitoei jazaritzeko grina horretan, txandaka dabil Europako beste *payo* neofaxista batzuekin, hala nola Berlusconi ospetsuarekin eta Aznar izeneko batekin, zeinak antz handia baitu faxismo-ko bi klasikorrekin —bata alemana eta bestea espainola— eta

ijitoen kanpalekuak desegin baitzuten bere agintaldian.

Horiek guztiak badakite, ikerketa soziologikoetarako zentroek egniko zundaketa estatistikoei esker, ijitoak direla gainerako herritarren artean gaizkiena ikusitakoak, batez ere ijito ibiltariak, hala nola Errumaniakoak eta Bulgariakoak; hori guztia, noski, agintari-erik bere horrelako ekimenekin bultzatu eta sustaturiko jarrera xenofoboaren barruan.

Ijitoak horrela zapaltzea garestiagoa da, gizarteratzeko baliabideak ematea baino, baina Sarkozyren gobernuko *payo*-ek ondotox dakite oinarrizko hiru gauza funtsezkoak direla zapalkuntza hori ulertzeko.

Lehenbizikoa: ijitoei leporatzen zaizkien legez kontrako jarduera eta delituek, egiazkoak direnean, *payo*-entzat izaten dira aberagarri eta onuragarri, batez ere botereduntzat: sexu esplotazioaren, haurren esplotazioaren, delituen eta abarren industrietako ondasun eta zerbizuetan dirua jarri, kudeatu eta kontsumitzen dituztenentzat. Ez da ulertzen zergatik ez dituzten kanporatzen horiek guztiak, askoz ere gehiago baitira, eta askoz ere kaltegarriagoak Sarkozy *payo*-ak bultzatu nahi omen duen gizarzte osasuntsu eta gardenarentzat.

Bigarrena: kanporatzeko ja-

rrera proaktibo hori alferrekoa da guztiz. Oraingo honetan, aurreko kasu askotan bezala, kanporatuak itzuli egingo dira. Batzuek, gainera, estimatuko diote Frantziako Gobernuari beren herrian oporrak pasatzeko ordaindu izana. Horren trukean, pagaburu gisa erabiltzen dituzte, ezkutuko helburu batzuk lortzeko erabaki ikaragarri horien bitartez. Ezkutuko helburu horietako batzuk barne kontsumorako kontuak izaten dira; besteak beste, *hauteskundeta*-ko merkatuan, eskuin muturreko sektoreak bereganatu nahi izatea, higiezinaren inguruko interes espekulatiboei erantzutea, eta abar. Kontu horiek gehiago kezkatu beharko lukete Frantziako errepublikako presidente *payo*-a.

Hirugarrena: badakite Barne ministroak, erabakiko aurkeztean, harrিতa agertu behar duela izaniko erantzun politiko, sozial eta mediatikoak ikusita. Eta horrela egin behar du, ez erantzun neurrigabeak iruditzen zaizkiolako —hala esan badu ere—, baizik eta erabaki horietako gehienak —denak ez, zorienez— propaganda egiteko direlako eta, egiaz, onura handiak ekar diezazkietelako.

Baina berehalaxe iritsi dira erantzunak, batez ere ijito europarrenak. Nahiz eta *payo*-ek ez dioten batere erraztu bidea, ijito

herriak argi eta garbi erakutsi du gizarteratzeko borondate eta ahalegin ukaezina. Eta halaxe egin du non egin aukeritu duen guztietan.

Historian sufritu duen arraza eta gizarte bazterketak oztipo handiak ekarri dizkio bere burua herri gisa berresteko. Barne zatiketa eragin du, eta nortasun ezaugarriak lausotu egin zaizkio, bizitzaren jarri den tokietako

kulturen imperialismoaren ondorioz. Nortasuna higatu egin zaio; *payo*-en inposizioen kontra irau du herri gisa, eta, batez, bigarren mailako herri moduan irau du. Azken batean, beti izan du murriztua bere burua herri gisa erakitzeko aukera.

Europako estatuetako gobernuak erabili egiten dituzte estatutik gabeko herriak, eta politikoki zapaldu. Horrek barne batasuna sendotzeko balio beharko luke, eta herri eta kultura gutxituen batasuna sendotzeko ere bai. Ijito herriaz argi garenen, 15 milioi lagun minoizazioaz ari gara. Ezin dugu ahaztu ijito herriari ere badagokiola jazarri, erabili eta ezabatzeko prozesu hori, kurduak, korsikarrei, euskaldunei eta katalanei bezalaxe, batzuk aipatzearen.

Erantzun gogorrek, oraingo honetan batez ere klase eta mota guztietako ijito elkarteek, baliagarriak izan behar dute batasun elementuak egituratzeko, ijitoen eskubideen alde borroka egiteko, herritar europar diren aldetik. Hala, Sarkozy *payo*-ari eta haren gainerako kideei —denak ere Mendebaldeko estatuen arrazakeria estruktural eta endemikoaren ordezkaritza peto-petoak— oker joko die kuak.

(Erredakzioan itzulia)

Ijito herriaz ari garenean, 15 milioi lagun minoizazioaz ari gara. Ezin dugu ahaztu ijito herriari ere badagokiola jazarri, erabili eta ezabatzeko prozesu hori, kurduak, korsikarrei, euskaldunei eta katalanei bezalaxe, batzuk aipatzearen